



GIZARTE-LANA EUSKARAZ

TRABAJO SOCIAL EN EUSKERA



Argitaratzailea / Edita: Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra

Egileak / Autores: Osasunbidea, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua,
Elhuyar Aholkularitza.

Diseinua / Diseño: cobo-munarriz.com

DL NA 2305-2025

Edizioa / Edición: 2025

GIZARTE-LANA EUSKARAZ

TRABAJO SOCIAL EN EUSKERA

AURKIBIDEA

ÍNDICE

Sarrera	Introducción	5
Harrera euskaraz egitearen garrantzia	La importancia de la acogida en euskera	7
Telefonozko arreta	Atención telefónica	7
Historia sozial sanitarioa	Historia Social Sanitaria	8
Oinarrizko osasun-laguntza	Atención primaria	13
Osasun mentaleko arreta	Atención en salud mental	19
Ospitaleko gizarte-laneko arreta	Atención en trabajo social hospitalario	22
Euskaraz zuzen(ago) eta egoki(ago)	Uso (más) correcto y (más) adecuado del euskera	24
Ez erabili	No utilizar	28
Desgaitasunak	Discapacidades	28
Euskara ez-sexista	Euskera no sexista	29
Lanbide-taldeak eta lanbideak	Grupos profesionales y profesiones	30
Laburtzapen batzuk	Algunas siglas y abreviaturas	32
Laneko ohiko hiztegia	Vocabulario habitual de trabajo	35
Gizarte-langileen gidaliburuaren eranskina	Anexo a la guía de trabajadores/as sociales	43



SARRERA

Gidaliburu hau Nafarroako Osasun Departamentuaren Hizkuntza Planaren baitan landutako materiala da eta Departamentuko profesionalei euskaraz lan egiteko erraztasunak ematea du helburu.

Euskararen ezagutzak gora egin du Nafarroan azken hamarkada hauetan. Euskararen erabilerak ere gora egin du; ez, ordea, ezagutzaren neurri berean. Ezagutza eta erabilera ez dira gauza bera. Erabilerak nekez eginen du aurrera zerbitzuen eskaintza zabaldu ezean, eta baldintza horrek, gizarte osoari bezala, Osasun Departamentuari ere bete-betean eragiten dio. Hizkuntza-ohiturak aldatzea, ordea, ez da erraza.

Euskaraz jakinda ere, eta euskarazko titulazioa izanda ere, maiz erdaraz erantzuten zaio paziente edo erabiltzaile euskaldunari. Zergatik? Arrazoi anitz egon daitezke tartean, hala nola euskaraz aritzeko gaitasun nahikorik ez izatea, osasunari buruzko hiztegia ongi ez ezagutzea, ohiko elkarrizketak aurrera eramateko segurtasun falta, dokumenturen bat betetzerakoan okerren bat egiteko beldurra, lotsa, ohitura falta...

Gidaliburu honek gabezia horiek gainditzeko laguntza ematea du helburu; zalantzaren bat, galderaren bat edo hutsuneren bat dagoenean laguntza eskaintzea.

Gizarte-langileei zuzendutako liburuxka da.

Gidaliburu hau osatzeko erabili diren materialen artean, Osakidetza *Gizarte-lana euskaraz* gidaliburua dago, eta, beraz, hemen jasotzen diren egitura batzuk liburuxka horretatik hartu dira. Elhuyarrek, Euskarabideak eta Osasun Departamentuak egin dute gidaliburu hau.

Eskerrak eman nahi dizkiegu lan hau egiten lagundu duten Osasunbideko langile guztiei; bereziki, Historia

INTRODUCCIÓN

Esta guía es un material elaborado en el marco del Plan Lingüístico del Departamento de Salud de Navarra, y su objetivo es facilitar a los/las profesionales del Departamento el trabajo en euskera.

El conocimiento del euskera ha aumentado en Navarra en las últimas décadas. También su uso se ha incrementado, pero no en la misma medida que el conocimiento. No es lo mismo conocimiento que uso. El uso difícilmente avanzará si no se amplía la oferta de servicios, condición que afecta de lleno, al igual que al conjunto de la sociedad, al Departamento de Salud. Sin embargo, no es fácil cambiar los hábitos lingüísticos.

A pesar de saber euskera y poseer la titulación que lo acredita, a menudo se responde en castellano a pacientes o personas usuarias vascohablantes. ¿Por qué? Puede deberse a diversas razones, como la falta de competencia suficiente para expresarse en euskera, el conocimiento insuficiente del vocabulario de salud, la inseguridad para manejarse en conversaciones habituales, el miedo a equivocarse al completar algún documento, la vergüenza, la falta de costumbre...

El objetivo de la presente guía es ayudar a superar estas dificultades, ofreciendo ayuda cuando exista alguna duda, pregunta o carencia.

Es un folleto dirigido a los/las trabajadores/as sociales.

Entre los materiales utilizados para la elaboración de esta guía, se encuentra la guía *Gizarte-lana euskaraz* [Trabajo social en euskera], de Osakidetza. En consecuencia, algunas de las estructuras que aparecen en el presente documento han sido tomadas de dicha obra. La presente guía ha sido elaborada por Elhuyar, Euskarabidea y el Departamento de Salud.

Sozial Sanitarioko Lantalde Teknikoko kideei, zeinek materiala egokitzen eta berrikusten parte hartu baitute; izan ere, haien laguntzarik gabe ezin izanen genuen gidaliburu hau osatu. Hauek dira kideak:

- Eva Espatolero Ladrero (Osasun Laguntzaren Eraginkortasun eta Segurtasunerako Zerbitzuko Arreta Soziosanitarioaren Ataleko burua)
- Irma Iglesias Ordoño (Osasun Laguntzaren Eraginkortasun eta Segurtasunerako Zerbitzuko Arreta Soziosanitarioaren Ataleko gizarte-laneko teknikaria)
- Maika Blasco Pérez (Gizarte Lan Sanitarioko koordinatzailea, Lizarrako Osasun Barrutia)
- Juana Muro Aguado (Herritarren Arretarako eta Koordinazio Soziosanitarioaren Ataleko burua, Tuterako Osasun Barrutia)
- Gloria Elgorriaga Aranaz (Koordinazio Soziosanitarioaren Ataleko burua, Osasun Mentaleko Kudeatzailetza)
- María Jose Moreno Ochotorena (Arreta eta Zainketa Soziosanitarioen Unitateko burua, Oinarrizko Osasun-laguntzako Kudeatzailetza)
- María Lainez Zaragüeta (Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko eta Laguntzaren Ebaluaziorako Zerbitzuko gizarte-laneko teknikaria, Oinarrizko Osasun-laguntzako Kudeatzailetza)
- Xabier Les Lacosta (Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Gizarte Lan Sanitarioko buru ohia)
- Olatz Villanueva Osés (Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Gizarte Lan Sanitarioko egungo burua)

Queremos agradecer a todas las personas trabajadoras de Osasunbidea que han colaborado en la realización de este trabajo, y especialmente a las personas integrantes del Grupo Técnico de Trabajo de Historia Social Sanitaria que han participado en la adecuación y revisión del material, sin cuya ayuda no podríamos haber completado esta guía:

- Eva Espatolero Ladrero (Jefa Sección At. Sociosanitaria del Servicio de Efectividad y Seguridad Asistencial)
- Irma Iglesias Ordoño (Técnica Trabajo Social Sección At. Sociosanitaria del Servicio de Efectividad y Seguridad Asistencial)
- Maika Blasco Pérez (Coordinadora Trabajo Social Sanitario Área de Salud de Estella)
- Juana Muro Aguado (Jefa Sección Atención a la Ciudadanía y Coordinación Sociosanitaria Área de Salud de Tudela)
- Gloria Elgorriaga Aranaz (Jefa Sección Coordinación Sociosanitaria Gerencia Salud Mental)
- María Jose Moreno Ochotorena (Jefa Unidad de Cuidados y At. Sociosanitaria Gerencia Atención Primaria)
- María Lainez Zaragüeta (Técnica Trabajo Social Servicio Apoyo a la Gestión Clínica y Evaluación Asistencial Gerencia Atención Primaria)
- Xabier Les Lacosta (anterior Jefe Unidad Trabajo Social Sanitario del Hospital Universitario de Navarra)
- Olatz Villanueva Osés (actual Jefa Trabajo Social Sanitario del Hospital Universitario de Navarra)

HARRERA EUSKARAZ EGITEAREN GARRANTZIA

"Hizkuntza kultura baten mapa da. Esaten dizu jendea nondik datorren, eta nora doan"

Rita Mae Brown

TELEFONOZKO ARRETA

- Telefono-deia jasotzen duzunean, euskaraz mintzatu beti, eta eman euskaldunari euskaraz jarraitzeko aukera.
- Zuk deitu baldin baduzu, agurtu euskaraz eta esan lehen hitzak euskaraz; solaskideak euskaraz ez baldin badaki, adieraziko dizu, eta orduan gaztelaniara pasatuko zara.
- Hitz garrantzitsuak nabarmendu edo errepikatu, polikiago esan, eta ziurtatu solaskideak ulertu dituela.
- Asko eta luze hitz egin behar baldin baduzu, tarteka aldatu intonazioa eta erritmoa; pausaldiak egin, arnasa hartzeko.
- Telefono-zenbakirik eman behar baldin baduzu, esan zenbakiak banan-banan, biko edo hiruko taldeetan: 943 00 79 99 (bederatzi-lau-hiru, zero-zero, zazpi-bederatzi, bederatzi-bederatzi).

LA IMPORTANCIA DE LA ACOGIDA EN EUSKERA

"La lengua es el mapa de una cultura. Te dice de dónde viene la gente y a dónde va"

Rita Mae Brown

ATENCIÓN TELEFÓNICA

- Al recibir una llamada, habla siempre en euskera; da a la persona vascohablante la opción de continuar en ese idioma.
- Si llamas tú, saluda en euskera y di las primeras palabras en dicho idioma. Si tu interlocutor/a no sabe hablar en euskera, te lo dirá y pasarás al castellano.
- Subraya o repite las palabras importantes; dilas más despacio y asegúrate de que han sido comprendidas por el/la interlocutor/a.
- Si tienes que hablar mucho rato, cambia de vez en cuando la entonación y el ritmo; haz pausas para respirar.
- Si vas a facilitar números de teléfono, di los dígitos uno a uno, o en grupos de dos o tres: 943 00 79 99 (nueve-cuatro-tres, cero-cero, siete-nueve, nueve-nueve).

HISTORIA SOZIAL SANITARIOA

Orrialde hauetan, galdera-multzo bat bildu da. Galdera horiek elkarrizketetan erabiltzeko dira, eta helburua da informazioa jasotzea Osasunbideko gizarte-lanean sor daitezkeen zenbait kasuistikari buruz. Ondorengo urratsa izanen da informazioa interpretatzea, diagnostiko sozial sanitarioa egitea eta tratamendu sozial sanitariorik hoberena eskaintzea, eriazen eta haren sare familiar eta sozialaren indargune eta ahulezietan oinarrituta, betiere errespetatuz bai haren erritmoa, bai erabakiak hartzeko duen autonomia.

Harrera-prozesua
Egun on, zure gizarte-langilea naiz. Esadazu, zertan lagun diezazuket?
Nahi baduzu, esadazu zure egoera zein den, eta zertan uste duzun lagun diezazukedala.
Ongi baderitsozu, zure zalantzei buruz ere galdetuko dizut, zure beharren eta egoera orokorraren berri izateko.
Ez kezkatu, zuk esaten didazuna isilpekoa izanen da.
Beste gizarte-langile batzuekin egon zara? Hori galdetzen dizut orain arte orientazio profesionalik jaso duzun jakiteko.
Ongi iruditzen bazaizu, hitzordua emanen dizut beste egun batean hitz egiten jarraitu ahal izateko.

Familia / Sarea / Bizikidetzak
Familia eta laguntza sarea garrantzitsuak dira. Zure familia-egoeraren berri izatea lagungarri da guretzat, behar dituzun laguntzak baloratu ahal izateko.
Norekin bizi zara? Hemen datu batzuk agertzen dira. Esanen didazu zuzenak diren ala zure egoera aldatu den?

HISTORIA SOCIAL SANITARIA

En las presentes páginas se han recogido una serie de preguntas para recabar, en el contexto de una entrevista, información sobre diversas casuísticas que se pueden presentar en Trabajo Social en el Servicio Navarro de Salud, con el objetivo posterior de interpretar dicha información, elaborar un diagnóstico social sanitario y ofrecer el tratamiento social sanitario más adecuado, en base a las fortalezas y debilidades del/la paciente y de su red familiar y social, respetando sus tiempos y su autonomía en la toma de decisiones.

Proceso de acogida
Buenos días, soy su trabajador/a social. Dígame, ¿en qué puedo ayudarle?
Si lo desea, puede explicarme cuál es su situación y en qué cree usted que puedo ayudarle.
Si le parece bien, le preguntaré asimismo sobre las dudas que pueda usted tener, para así poder conocer sus necesidades y su situación general.
No se preocupe, lo que me diga será confidencial.
¿Ha estado con otros/as trabajadores/as sociales? Se lo pregunto para saber si previamente ha recibido alguna orientación profesional.
Si le parece bien, le voy a dar una cita para poder continuar hablando otro día.

Familia / Red / Convivencia
La familia y la red de apoyo son importantes. Conocer su situación familiar nos ayuda a la hora de valorar los apoyos que necesita.
¿Con quién vive? Aquí tenemos algunos datos, ¿me puede decir si son correctos o si su situación ha cambiado?



Bakarrik edo familian bizi zaren jakiteak zure beharretara egokitzen lagunduko digu.
Duzun elkarbizitza pozgarria da? Ongi sentitzen zara? Oso garrantzitsua da inguruan dituzun pertsonekin ongi sentitzea.
Zein da zure eguneroko errutina? Etxeko lanak banatzen dituzue?
Aipatzen ari zaren arazo horrek ba al du loturarik zure familiako kideren batekin?
Bakarrik sentitzen zara?
Baduzu konfiantzaz hitz egiteko lagun edo ahaiderik?
Arazoak dituzu seme-alabekin, gurasoekin, bikotearekin? Zer arazo?
Nola lagun diezazuket arazo horiek konpontzen?

Osasuna
Historia klinikoan ikus dezaket zer osasun-arazo dituzuen zuk edo zure ahaideek. Nahi duzu horri buruz hitz egin dezagun?
Tratamendu berezirik behar duzu? Tratamenduren bat hartzen ari zara? Nola eragiten dizu eguneroko bizitzan?
Gaixotasun horrek arazoak eragin dizkizu zure lanean?
Helburua da osasun-baliabideak zure beharretara egokitzen saiatzea.
Aurretiazko Erabakien Plangintza eta Aurretiazko Borondateen Agiria zer diren azaldu nahi nizuke. Pertsona bakoitzak erabaki dezake nolako zainketak nahi dituen, une hori heltzen denean erabakirik hartu ezin badu.

Saber si vive solo/a o en familia nos ayudará a adaptarnos a sus necesidades.
¿Su convivencia es satisfactoria para usted? ¿Se siente bien? Es muy importante que se sienta bien con las personas que le rodean.
¿Cuál es su rutina diaria? ¿Se reparten ustedes las tareas domésticas?
¿El problema al que se está usted refiriendo está relacionado con algún miembro de su familia?
¿Se siente solo/a?
¿Tiene amigos/as o familiares con los/las que pueda hablar en confianza?
¿Tiene problemas con sus hijos/as, padres o pareja? ¿Cuáles?
¿Cómo puedo ayudarle a resolver esos problemas?

Salud
En la historia clínica, veo los problemas de salud que tienen usted o sus familiares. ¿Quiere que hablemos de este tema?
¿Necesita algún tratamiento especial? ¿Está siguiendo un tratamiento? ¿Cómo le afecta en su vida diaria?
¿Le ha causado esta enfermedad problemas en su trabajo?
El objetivo es intentar adaptar los recursos relacionados con la salud a sus necesidades.
Me gustaría explicarle qué es la Planificación de Decisiones Anticipadas y el Documento de Voluntades Anticipadas. Cada persona puede decidir lo que desea en torno a sus cuidados, si cuando llega el momento no puede tomar decisiones.

Autonomia / Mendekotasuna / Desgaitasuna
Zure autonomia-maila ebaluatzen dugu, eguneroko jarduerak (etxeko lanak, zainketa pertsonala...) egiteko laguntzarik behar ote duzun jakiteko.
Eguneroko jardueretan, laguntzaren bat behar izaten duzu, etxeko lanak egiteko (garbiketa, erosketak, janaria prestatzea), zainketa pertsonala egiteko (higienea, janzteia...)? Laguntza hori baduzu?
Zer neurritan zaude beste pertsona baten mende, zure eguneroko oinarritzko zereginak egiteko?
Nork zaintzen zaitu? Familiako batek edo kontratatutako pertsona batek? Kontratatua izanez gero, zenbat orduz laguntzen dizu?
Zure ustez, zer behar duzu nahi duzun bizitza izateko?
Laguntza teknikorik, gailurik edo laguntzarik erabiltzen al duzu eguneroko zereginak egiteko?
Nola eragiten dio patologia zure lanari, ikasketei edo bizitza sozialari?

Hezkuntza eta lan-egoera
Zure prestakuntza mailaz eta lan munduarekin duzun harremanaz hitz egingen dugu jarraian, zu orientatzeko baliabide espezializatuak bilatzearen. Ikasketak amaitu zenituen? Zer mailataraino iritsi zinen? Lanean ari zara gaur egun? Eta hala bada, zailtasunak izan dituzu? Zer zailtasun izan dituzu lan mundura sartzeko?
Ba al duzu zure lana egiteko zailtasunik?
Nola eragiten dio zure osasun arazoak zure lanari? Lanean gustura ez zaudela sentitzen duzu?

Autonomía / Dependencia / Discapacidad
Evaluamos su grado de autonomía, a fin de saber si necesita ayuda para realizar las actividades cotidianas: tareas domésticas, cuidado personal...
¿Suele necesitar algún tipo de apoyo en las actividades cotidianas: realización de las tareas domésticas (limpieza, compras, preparación de la comida), cuidado personal (higiene, acción de vestirse...)? ¿Dispone de esa ayuda?
¿En qué grado depende de otra persona para llevar a cabo lo más básico de su vida diaria?
¿Quién es la persona que le cuida? ¿Pertenece a la familia o es una persona contratada? Si es contratada, ¿cuántas horas le ayuda?
¿Qué cree usted que necesita para tener la vida que desea?
¿Utiliza algún tipo de ayuda técnica, dispositivo o apoyo para realizar las tareas de la vida cotidiana?
¿Cómo afecta la patología a su trabajo, estudios o vida social?

Educación y situación laboral
Hablemos de su nivel de formación y de su relación actual con el mundo laboral, a fin de buscar recursos especializados para orientarle: ¿Finalizó sus estudios? ¿Hasta qué nivel? ¿Trabaja actualmente? Y si es así, ¿ha tenido dificultades? ¿Qué obstáculos ha encontrado para acceder al mundo laboral?
¿Tiene dificultades para realizar su trabajo?
¿Cómo afecta su problema de salud a su trabajo? ¿Considera que no está a gusto en el trabajo?



Egoera ekonomikoa
Zure diru-sarrerekin nahikoa duzu zure behar guztiak asetzeko? Hilabete bukaerara iristeko arazorik izan duzu noizbait? Laguntzarik jasotzen al duzu?
Diru-sarrera nahikoak dituzu zuretzat eta zure familiarentzat? Galdera hau egiten dizut, baliabiderik beharko bazenu modu egokian orientatu ahal izateko.
Arazoak dituzula esaten didazunean, jakin nahi nuke osasun-gastuengatik, etxebizitzagatik, familia-gastuengatik... diren.
Ongi baderitsozu, oraintxe azalduko dizut zer laguntza izan ditzakezun. Baldintza batzuk bete behar dira laguntza horiek jaso ahal izateko...

Etxebizitza eta ingurua
Bizilekuak eta inguruak eragin handia dute gure eguneroko bizimoduan.
Etxebizitza zure eta zure familiaren beharretara egokituta duzu?
Zurea al da etxebizitza? Etxebizitza partekatua da?
Ba al duzu etxearekin lotutako arazo edo kezkarik (alokairua, hipoteka, irisgarritasuna...)? Zure ingurua segurua eta irisgarria dela uste duzu?
Bisita bat egin nahiko genizuke, ongi iruditzen bazaizu, zure etxebizitza zure beharretara egokitzen laguntzeko.

Situación económica
¿Sus ingresos son suficientes para cubrir todas sus necesidades? ¿Ha tenido problemas para llegar a fin de mes? ¿Recibe ayudas?
¿Tiene ingresos suficientes para usted y su familia? Le hago esta pregunta, para poder orientarle adecuadamente en caso de que necesite recursos.
Quando me dice que tiene problemas, me gustaría saber si son por gastos de salud, vivienda, gastos familiares...
Si le parece bien, le voy a explicar las ayudas a las que puede acceder. Existen varios requisitos para poder obtener esas ayudas...

Vivienda y entorno
La casa y el entorno tienen un gran impacto en nuestro día a día.
¿Tiene la vivienda adaptada a sus necesidades y a las de su familia?
¿La vivienda es suya? ¿Es una vivienda compartida?
¿Tiene algún problema o preocupación relacionado con la vivienda (alquiler, hipoteca, accesibilidad...)? ¿Cree que su entorno es seguro y accesible?
Nos gustaría hacerle una visita, si le parece bien, para ayudarle a adecuar su vivienda a sus necesidades.

Eremu pertsonala eta bizi-dinamika

Eguneroko bizitzan aritzeko motibatuta sentitzen zara?

Zure egunerokoa kontatu beharko bazenit, zein izanen litzateke zure ekintzen segida?

Zure eguneroko bizitzaren zenbait alderdi aldatzea gustatuko litzazuke?

Osasunagatik ohiturak aldatu behar dituzula esan dizute, ezta? Ikus dezagun zertan lagun diezazukedan.

Ikusten dudanez, oso kezkatuta zaude zure familiaren egoeratik.

Ámbito personal y dinámica vital

¿Se siente motivado/a para llevar adelante su vida cotidiana?

Si tuviera que explicar su vida diaria, ¿cómo sería el desarrollo de un día?

¿Le gustaría cambiar aspectos de su día a día?

Le han dicho que tiene que cambiar sus hábitos debido a su salud, ¿verdad? Vamos a ver en qué puedo ayudarle.

Veo que está muy preocupado/a por la situación de su familia

Harreman eta kontaktu sozialak

Jendearekin harremanetan egotea gustatzen zaizu ala nahiago duzu bakarrik egon?

Zer maiztasunekin ateratzen zara lagunekin edo familiarekin aisialdian?

Familiarekin dituzun harremanak onak dira? Elkarbizitza konplikatu da batzuetan, eta arazoak sortzen direnean egoera ez da batere erraza izaten.

Relaciones y contactos sociales

¿Le gusta estar en contacto con la gente o prefiere estar solo/a?

¿Con qué frecuencia sale a disfrutar del tiempo libre con sus amigos/as o con su familia?

¿Las relaciones con su familia son buenas? La convivencia es a veces complicada y cuando existen problemas aumentan las dificultades.

Ba al duzu konfiantzazko pertsonarik?

Zure arazoak norbaiti kontatu nahi dizkiozunean, asko kostatzen al zaizu zure sentimenduak adieraztea?

Batzuetan, bakarrik bazaude, oso zaila izaten da erabakiak hartzea. Hori dela eta, konfiantzazko pertsonak behar izaten ditugu, laguntzeko. Zerbait behar baduzu, esadazu: ez izan inolako arazorik niri esateko.

¿Tiene personas de confianza?

Cuando quiere compartir sus problemas con alguien, ¿le cuesta mucho expresar sus sentimientos?

A veces es muy difícil tomar decisiones estando solos/as. Por eso necesitamos personas de confianza que nos ayuden. Si necesita algo, dígalo, no tenga problemas para decírmelo.

OINARRIZKO OSASUN-LAGUNTZA

Oinarrizko osasun-laguntza da herritarrek osasun-sistemarekin harremana izateko duten lehen maila. Bertan arreta integral, irisgarri, jarraitu eta koordinatua ematen da, talde-lanean oinarrituta eta herritarrek parte-hartze aktiboa izaten dutela. Horretarako, sustapen, prebentzio, sendaketa, errehabilitazio eta gizarteratzeko hainbat jarduera egiten dira, gizabanakoari, komunitateari edo haien inguruneari zuzenduak.

Prebentzioa, eta osasunaren zainketarekin lotutako bizimoduen sustapena

Osasun-ohitura osasuntsuak sustatzeko ekintzetan parte hartzea proposatu nahi dizugu. Interesatuko litzaizuke?

Osasun-ohituraren bat hobetu nahiko zenukeela uste duzu? Zer osasun-ohitura hobetu nahiko zenituzke?

Osasun-ohituretan eragiteko zenbait zerbitzu eskainiko dizkizut...

ATENCIÓN PRIMARIA

La Atención Primaria constituye el primer nivel de contacto de los/las ciudadanos/as con el sistema sanitario, prestándose en él una atención integral, accesible, continuada y coordinada sobre la base del trabajo en equipo y con la participación activa de la población, a través de actividades de promoción, prevención, curación, rehabilitación y reinserción social dirigidas al individuo, la comunidad y el medio en el que se desarrollan.

Prevención y promoción de estilos de vida relacionados con el cuidado de la salud

Le proponemos participar en acciones de promoción de hábitos saludables. ¿Le interesaría?

¿Cree que le gustaría mejorar algún hábito de salud? ¿Qué hábitos de salud le gustaría mejorar?

Le voy a ofrecer una serie de servicios que influyen en los hábitos de salud...



Arrisku faktoreak eta gaixotasun kronikoak dituzten pazienteekin esku-hartzea
Kronikoen Estrategiaren barruan, zure egoera baloratuko dugu, medikuekin eta erizainekin batera, zure beharretan oinarrituta dagoen arreta eskaintzeko.
Saiatzen ari gara zure gaixotasun kronikoa hobeki kudeatzeko laguntza ematen; besteak beste, zure autonomia handitzeko behar dituzun zainketak bermatzen. Zurekin eta zure familiarekin batera aztertu nahi dugu zer laguntza eskaini ditzakegun, gaixotasunaren mugek eragin txikiagoa izan dezaten zure eguneroko bizitzan.
Eskatzen dizugu gaixotasun prozesu honetan etor zaitezela beharrezkoa den guztietan. Zainketa batzuk oso zorrotzak dira, eta arreta eman behar dizuegu bai pertsona zainduari, bai zaintzaileei.
Eguneroko bizitzan, zer zailtasun nabaritzen dituzu?

Ospitaleko alta planifikatzeko programaren jarraipena egiten segitzea, Oinarrizko Osasun-laguntzan
Egun on, osasun-etxeko gizarte-langilea naiz eta, ospitaleko gizarte-laneko nire lankideak jakinarazi dizun bezala, zurekin harremanetan jartzen gara alta jaso ondoren behar dituzun zainketak bermatzeko.
Zer moduz zauden jakin nahi genuke, ea arazorik izanen duzuen etxera itzuli ondoren, zainketak ongi antolatuta dauden, pentsatu zenutena baliozkoa den edo beste aukera batzuk aztertu behar ote diren.
Etxean bakarrik bizi zara? Norbait arduratzen da zure zaintzaz etxean zaudenean?
Zure etxera joan nahiko genuke bisita bat egitera, zure beharrak baloratzeko.

Intervención con pacientes con factores de riesgo y enfermedades crónicas
Dentro de la Estrategia de Crónicos, vamos a valorar su situación, junto con personal médico y de enfermería, para poder ofrecerle una atención más centrada en sus necesidades.
Le intentamos ayudar a gestionar mejor su enfermedad crónica; garantizar los cuidados que necesita para mejorar su autonomía... Analizaremos –de acuerdo con usted y su familia– qué apoyos podemos ofrecer, para que las limitaciones de la enfermedad influyan menos en su día a día.
Le pedimos que en este proceso de enfermedad venga cuando sea necesario. Hay cuidados que son muy exigentes, y tenemos que cuidar tanto a la persona cuidada como a las personas cuidadoras.
En su vida cotidiana, ¿qué dificultades tiene?

Continuidad de seguimiento en Atención Primaria del Programa Planificación del Alta Hospitalaria
Buenos días, soy el/la trabajador/a social del centro de salud y, tal y como le informé mi compañera/o de Trabajo Social Hospitalario, nos ponemos en contacto con usted para garantizar los cuidados que necesita tras el alta.
Nos gustaría saber cómo se encuentra, si tienen problemas con la vuelta a casa, si los cuidados están organizados, si han visto que lo que habían pensado es válido o hay que considerar otras posibilidades.
¿Vive solo/a en casa? ¿Alguien se ocupa de su cuidado cuando está en casa?
Nos gustaría hacerle una visita a domicilio para valorar qué puede necesitar.

Zaintzaileentzako arreta
Zaintzak berak neke emozional eta fisikoa eragin dezake, eta hori aintzat hartu beharrekoa da. Nola sentitzen zara?
Estututa sentitzen zara ahaidearen zaintza eta beste ardura batzuk (adibidez, lana edo zeure familia) bateratzen saiatzeagatik?
Haserre eta/edo tentsioan sentitzen zara zure ahaidearengandik gertu zaudenean?
Zure ahaidearen zaintza utzi nahi zenuke?
Ba al duzu atsedena bermatzeko baliabiderik? Zenbat orduko atsedena hartzen duzu egunean?
Ohikoa da zainketengatik nekatuta edo akituta egotea. Nahi duzunean hitz egin dezakegu, oso lan gogorra egiten ari baitzara.
Dakizunez, beste norbait zaindu ahal izateko, bakoitzak bere burua zaindu behar du.

Haurren Osasun Plana
Egun on. Gizarte-langileokin hitzordua eman dizuete; izan ere, elkarrizketa bat egiten diegu jaioberrien gurasoei, elkar ezagutzeko; ikusteko ea zer moduz ari zareten haurra zaintzen lehen fase honetan, zainketa hori zaila izan baitaiteke; eta jakiteko babesik ba ote duzuen eta laguntza edo informaziorik behar ote duzuen.
Ongi al zaude erditzearen ondoren? Haurra bion artean zaintzen duzue? Horrela segituko duzue? Behar izanez gero, familiaren laguntzarik ba al duzue? Zer ahaideren laguntza?
Zaila egiten zaizue lana eta familia-bizitza uztartzea? Nola antolatuko duzue zaintza?

Atención a personas cuidadoras
El hecho del cuidado en sí puede llevar a un cansancio emocional y físico que es necesario tener en cuenta. ¿Cómo se siente?
¿Se siente agobiado/a por tener que compatibilizar el cuidado de su familiar con otras responsabilidades como el trabajo o familia propia?
¿Se siente enfadado/a y/o tenso/a cuando está cerca de su familiar?
¿Desearía poder dejar el cuidado de su familiar?
¿Dispone de medios para garantizar su descanso? ¿Cuántas horas descansa al día?
Es habitual estar cansado/a o agotado/a por los cuidados. Hablamos cuando usted quiera, porque es muy duro el trabajo que está haciendo.
Como bien sabe, para poder cuidar es necesario cuidarse.

Plan de Salud Infantil
Buenos días, les han dado una cita con Trabajo Social, porque hacemos una entrevista a los padres y las madres de los/las recién nacidos/as para conocernos, ver cómo están llevando la crianza en esta primera fase, que puede ser complicada, saber si cuentan con apoyos y si necesitan alguna ayuda o información.
¿Se encuentra bien después del parto? ¿Tienen compartida la crianza? ¿Se va a mantener así? Si les hace falta, ¿tienen apoyo familiar? ¿Quiénes les apoyan?
¿Les resulta complicado conciliar la vida laboral y la familiar? ¿Cómo van a organizar el cuidado?

Indarkeria guztiei arreta ematea
EMAKUMEA:
• Hautemate goiztiarra
Oro har, nola definituko zenuke zure bikote-harremana?
Nola konpontzen dituzue zuen eztabaidak? Zailtasunez ala arazorik gabe?
Inoiz tratu txar emozional, fisiko edo sexualik jasan al duzu zure bikotekidearen aldetik, edo zuretzat garrantzitsua den pertsona baten aldetik?
Eztabaidak amaitzean, goibel edo zeure buruarekin gaizki sentitzen zara?
Kolpeka, ostikoka edo bultzaka amaitzen dira eztabaidak?
Bikotekideak egiten edo esaten duenaren beldur zara?
Zure bikotekideak behartu al zaitu inoiz fisikoki?
Zure bikotekideak abusatu al du zutaz emozionalki?
Zure bikotekideak abusatu al du zutaz sexualki?
• Susmoa dagoenean, emakumearen aurrekariei eta ezaugarrii buruz lortutako informazioagatik
Beldurtuta zaudela ematen du, erne-erne eta alertan zaudela. Zeren beldur zara?
Zer moduz etxeko kontuak?
Emakume asko zu bezala egoten dira, bikotekidearekin zailtasunak edo harreman txarra dutelako. Hori al da zure kasua?
Zerbaitetan laguntzen ahal dizugu? Zer behar duzu?
Zuri entzuteko eta zure egoeraren berri jakiteko gaude hemen; inola ere ez, zu epaitzeko. Zure erritmoa errespetatuko dugu. Konfiantzaz hitz egiteko lekua eta laguntza behar baduzu, hemen gaude, beti laguntzeko prest.

Atención a todas las violencias
MUJER:
• Detección temprana
En general ¿cómo definiría su relación de pareja?
¿Cómo resuelven sus discusiones? ¿Con dificultad o sin problemas?
En alguna ocasión ¿ha sufrido maltrato emocional, físico o sexual por parte de su pareja o por una persona importante para usted?
Al terminar las discusiones, ¿se siente decaída o mal consigo misma?
¿Las discusiones terminan en golpes, patadas o empujones?
¿Siente miedo de lo que su pareja haga o diga?
¿Su pareja ha abusado de usted físicamente?
¿Su pareja ha abusado de usted emocionalmente?
¿Su pareja ha abusado de usted sexualmente?
• En caso de sospecha, por la información obtenida sobre los antecedentes y características de la mujer
Parece que estuviese asustada, en alerta. ¿De qué tiene miedo?
¿Cómo van las cosas en casa?
Muchas mujeres se sienten como usted debido a dificultades o malas relaciones con su pareja. ¿Es este su caso?
¿Cree que le podemos ayudar en algo? ¿Qué necesita?
Estamos aquí para escuchar y conocer su situación. Nunca para juzgarle. Respetamos sus tiempos. Si necesita espacio y ayuda para hablar en confianza, aquí estamos.

ADINEKOAK:
Ez izan beldurrik niri kontatzeko. Zuri laguntzeko eta nahi duzun arte laguntzeko nago hemen.
Ahaide, seme-alaba edo bilobaren baten beldur zara? Nolakoa da zaintzen zaituen pertsonarekiko harremana?
Zure ustez, zaintzaileak gaizki hitz egiten dizu, gaizki tratatzen zaitu? Denbora luzez uzten zaitu bakarrik? Diru gehiegi eskatzen dizu?
Esaten didazuna sinesten dut, bai. Badakit oso gogorra dela, zure ahaidea delako, baina gauza guztietan babestu nahi zaitugu.
Hemen gaude zure egoera ezagutzeko. Babesa eta baliabideak eskaintzen dizkizugu, zure segurtasuna bermatzeko. Konfiantzaz hitz egiteko lekua eta laguntza behar badituzu, hemen gaude, beti laguntzeko prest.
HAURRAK ETA NERABEAK
Esan nahi didazu zerk kezkatzen zaituen? Nik sinesten dizut. Saia zaitetz errudun ez sentitzen.
Bakarka kontatu nahi didazu? Ez izan beldurrik: zerbait egiten badugu, behar duzun horretan laguntzeko izanen da. Kontatzea erabaki duzu, eta hori aukera oso ausarta da.
Patxadaz hitz eginen dugu. Nahiago dut zuk hitz egitea, nik entzun eginen dizut.
Ulertzen dut zure sufrimendua, oso ongi azaldu didazu eta babestuko zaitugu.
Inork ez du merezi gaizki tratatua izatea.

MAYORES:
No tenga miedo a contarme, estoy para apoyarle y acompañarle hasta que usted lo decida.
¿Tiene miedo de algún/alguna familiar, de su hijo/a, de su nieto/a? ¿Cómo es la relación con la persona que le cuida?
¿Considera que su cuidador/a le habla o trata mal? ¿Le deja mucho tiempo solo/a? ¿Le pide dinero en exceso?
Creo lo que me está contando. Sé que es muy duro, porque es su familia, pero le vamos a apoyar en todo.
Queremos escucharle y conocer su situación. Le ofrecemos protección y recursos, para garantizar su seguridad. Si necesita espacio y ayuda para hablar en confianza, estamos aquí para usted.
INFANCIA Y ADOLESCENCIA
¿Quieres contarme qué te preocupa? Yo te creo, intenta no culpabilizarte.
¿Quieres contármelo a solas? No tengas miedo: si tenemos que intervenir y hacer algo, te acompañaremos en lo que necesites. Es muy valiente que hayas decidido contarlo.
Vamos a hablar con calma, prefiero que me hables, yo te escucho.
Entiendo tu sufrimiento, me lo has explicado muy bien y te vamos a proteger.
Nadie merece que se le trate mal.

Osasun-laguntzaren unibertsalizazioa

Egun on, hitzordua eman dizute Nafarroako osasun-laguntzarako sarbidea eskatzeko. Dokumentazio hau ekarri behar didazu.

Ba al duzu presazko hitzordua behar duen osasun-arazorik? Hala bada, lehentasunezko arreta eskatuko dizugu.

Egun gutxiren buruan izanen duzu arreta onartuta. Eta hitzordua hartu ahalko duzu osasun-etxean eta zure medikuaren bidez, Ospitalean, kardiologian, traumatologian...

Osasun-etxeko harrerari buruzko gidaliburua emanen dizut; bertan izanen dituzu ordutegiak eta jaso dezakezun arreta.

Zure egoera dela eta, ezin dizut osasun-txartela hemendik kudeatu, baina esanen dizut non eska dezakezun.

Universalización de la asistencia sanitaria

Buenos días, le han dado cita para solicitar el acceso a la asistencia sanitaria en Navarra. Esta es la documentación que me tiene que presentar.

¿Tiene algún problema de salud que necesite cita urgente? Si es así, le solicitaremos la asistencia de manera prioritaria.

En pocos días tendrá la asistencia reconocida, y podrá acceder a una cita en el centro de salud, con su médico/a, en Hospital, con cardiología, traumatología, etc.

Le doy la guía de acogida del centro de salud, con los horarios y la atención que puede recibir.

Por su situación no puedo gestionarle la tarjeta sanitaria desde aquí, pero le voy a indicar dónde la puede solicitar.



OSASUN MENTALEKO ARRETA

Oso garrantzitsua da osasun mentalaz ari garenean hitz egokiak erabiltzea eta osasun mentalaren zainketa bultzatzen duen informazioa ematea.

Ez da komeni gaixotasun mentalak desgaitasunarekin eta mendekotasunarekin sistematikoki lotzea. Gaixotasun mentala duten batzuek desgaitasuna edota mendekotasuna izaten ahal dute, baina ezin da orokortu. Beraz, ez da **mendeko** hitza erabili behar nahasmendu mentalak dituzten pertsonen erreferentzia egiteko.

Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak eta antzeko esapideak erabiltzea gomendatzen da, **gaixo mentalak** erabili beharrean; beraz, hobe da **pertsonak** hitza jartzea beti. Izan ere, **gaixo mentalez** hitz egitean pertsonen ezaugarri bakar horretan jartzen da arreta guztia, ez pertsonengan.

Gure ikuspegitik, patologia mental bat duten pertsonak zailtasun psikosozialak dituzten pertsonak dira, edo desgaitasun psikosoziala duten pertsonak.

Gaixotasun mental terminoak neutroa dirudi, baina pertsonari leporatzen zaizkion estereotipo negatibo asko dakartza berekin. Hori dela eta, hobe da **osasun mentaleko arazoak** edo **nahasmendu mentalak** esapideak erabiltzea.

Hiztegian jasotako esanahiaz harago, hobe da gaixotasunaren izena substantibo gisa ez erabiltzea pertsonari erreferentzia egiteko, nahasmenduak ez baitu pertsona definitzen. Hau da, ez dira **eskizofreniko, anorexiko** edo **depresibo** hitzak erabili behar, pertsonak definitzeko: **Eskizofrenikoa oihuka atera zen gelatik → Eskizofrenia duen pazientea oihuka atera zen gelatik. Anorexikoarekin hitz egin zuten → Anorexia duen mutilarekin hitz egin zuten.**

Pertsona horiek osasun mentaleko zentroetara joaten dira, ospitale psikiatrikoetara, ospitaleko

ATENCIÓN EN SALUD MENTAL

Es muy importante utilizar las palabras adecuadas cuando hablamos de salud mental y proporcionar información que potencie el cuidado de la salud mental.

No es conveniente asociar sistemáticamente las enfermedades mentales con la discapacidad, ni con la dependencia. Algunas personas con enfermedad mental pueden tener discapacidad o dependencia, pero no se puede generalizar. Por lo tanto, no se debe utilizar el término **dependiente** para referirse a personas con trastornos mentales, de manera sistemática.

Se recomienda emplear expresiones como **personas con problemas de salud mental** en lugar de **enfermos/as mentales**, es decir, emplear siempre el término **personas**. De hecho, al hablar de **enfermos/as mentales** la atención se limita a esa única característica de la persona, y no a la totalidad de la persona.

Desde nuestra perspectiva las personas con patología mental son personas con dificultades psicosociales e incluso personas con discapacidad psicosocial.

El término **enfermedad mental** parece neutro, pero conlleva muchos estereotipos negativos que se le atribuyen a la persona. Por ello, es preferible utilizar **problemas de salud mental** o **trastornos mentales**.

Más allá del significado recogido en el diccionario, es preferible no utilizar el nombre de la enfermedad como sustantivo para referirse a la persona, ya que el trastorno no define a la persona. Es decir, no hay que utilizar palabras como **esquizofrénico/a, anoréxico/a** o **depresivo/a** para definir a las personas: **El esquizofrénico salió gritando de la habitación → El paciente con esquizofrenia salió gritando de la habitación. Hablaron con el anoréxico → Hablaron con el chico que tiene anorexia.**

psikiatria-zerbitzuetara, eguneko ospitaleetara edo errehabilitazio-zentroetara. Zentro horiek aipatzean, ez dira **eroetxe** eta **zoroetxe** hitzak erabili behar.

Bestalde, Osasunbideak zenbait esku-hartze egiten ditu Nafarroako Osasun Mentaleko Sarearen bidez (NOMS). NOMSek egiten dituen esku-hartzeen barruan, solasaldietan ager daitezkeen oinarritzko formula batzuk emanen ditugu jarraian:

Esku-hartze sozialerako plana

Elkarrekin plan bat prestatuko dugu zure egoera hobetzeko. Planak ibilbide-orri bat izanen du, eta hari jarraituko diogu urratsez urrats, ados?

Zure erritmoa eta nahiak kontuan hartuta, plana malgua izanen da, zure bilakaerara behar bezala egokitzeko.

Estas personas acuden a centros de salud mental, a hospitales psiquiátricos, a servicios de psiquiatría hospitalaria, a hospitales de día o a centros de rehabilitación. Para hablar de estos centros no se empleará la palabra **manicomio**.

Por otra parte, el Servicio Navarro de Salud realiza diversas intervenciones a través de la Red de Salud Mental de Navarra (RSMN). A continuación, se recogen fórmulas básicas de conversaciones que se pueden dar en las intervenciones del RSMN:

Plan de intervención social

Juntos/as prepararemos un plan para mejorar su situación. Habrá una hoja de ruta que desarrollaremos paso a paso, ¿de acuerdo?

El plan será flexible, tendrá en cuenta su ritmo y sus deseos, para adaptarse bien a su evolución.



Familiarekin/bizikidetzta-unitatearekin esku-hartzea

Familia osoari lagundu nahi diogu, ez bakarrik erabiltzaileari. Horretarako, zuen etxeko egoera aztertuko dugu, zuen eguneroko bizitza errazagoa izan dadin eta behar diren baliabideak egokitu ditzagun.

Badakigu familia bakoitza desberdina dela; horregatik, egoera estresagarriak kudeatzeko tresna egokiak eskainiko dizkizugu. Garrantzitsua da jakitea zer moduz moldatzen zareten etxean egoera hau kudeatzean eta nola sentitzen zareten familiakook prozesu honetan, zuen beharrei ahalik eta ongien erantzuteko.

Zer moduz kudeatzen duzue etxean dagoen egoera hori?

Nola sentitzen zarete familiakook prozesu honetan?

Konfidentziasuneko konpromiso bat dugu artatzen dugun pertsonarekin; alderdi hori beti izanen dugu kontuan gure topaketetan.

Laguntza psikosoziala

Zure alboan egonen gara behar duzun denbora guztian, laguntza eta babesa eskaintzeko, zu indarberritzeko prozesuan.

Zure autonomia eta konfiantza landuko ditugu, zure gaitasunak indartuz eta eguneroko erronkei aurre egiteko tresnak eskainiz. Azkenean, helburua zure ongizatea bermatzea da, baliabiderik egokienak emanez.

Zahartzaroaz

Batzuetan, gaztelaniazko **tercera edad** eufemismoa euskaratu nahian, **hirugarren adina** esaten zaio zahartzaroari euskaraz, baina hobe da hori baztertzea.

Intervención con la familia/unidad convivencial

Estamos para ayudar a toda la familia, no solo a la persona usuaria. Para ello, analizaremos la situación de su casa, a fin de facilitarles la vida cotidiana y adecuar los recursos necesarios.

Sabemos que cada familia es diferente, y le ofreceremos herramientas adecuadas para manejar situaciones estresantes. Es importante conocer cómo se las arreglan en casa con esta situación, y cómo se sienten como familia en este proceso, para responder de la mejor manera posible a sus necesidades.

¿Cómo se las arreglan en casa para gestionar esta situación?

¿Cómo se sienten como familia en este proceso?

Tenemos un compromiso de confidencialidad con la persona atendida, este aspecto estará presente en nuestros encuentros.

Apoyo psicossocial

Estaremos a su lado todo lo que necesite, para ofrecerle ayuda y apoyo en su proceso de recuperación.

Trabajaremos en su autonomía y confianza, fortaleciendo sus capacidades y ofreciendo herramientas para afrontar los retos del día a día. El objetivo es garantizar su bienestar, ofreciéndole los recursos más adecuados.

Sobre la vejez

En ocasiones, al traducir el eufemismo castellano **tercera edad** al euskera, se utiliza el calco lingüístico **hirugarren adina** para denominar la vejez. Es mejor no usarlo.

OSPITALEKO GIZARTE-LANEKO ARRETA

Ospitalean, gizarte-langileen esku-hartzearen helburu nagusia da ospitaleko alta jaso ondorengo zainketak bermatzea.

Oinarritzko Osasun-laguntzan eta Osasun Mentaleko Sarean bezala, gerta daiteke pazienteak eta familiak/ingurukoek eskatzea lehen elkarrizketa bat izateko pazientearekin eta haren ingurukoekin, balorazioa egitearren.

Ospitalean, hainbat zerbitzutan, ohikoa da esku-hartzeak Gizarte-laneko Unitatearen ekimenez hastea, “proiektu edo protokolo” propioz. Hori dela eta, esku-hartzearen ikuspegia aldatu egiten da, eta pazienteari esku-hartzearen arrazoa jakinarazi behar diogu.

Bestalde, gaixotasunaren faserik larrienean esku hartzen dugunez, batzuetan egoera konplexuak sortzen dira: bizitzaren amaiera, bat-batean autonomia galtzea... Horregatik, gure lanaren eta esku-hartzearen muina da erabakiak hartzen laguntzea, sentimenduen adierazpena bideratzea eta, ororen gainera, alta hartzean izanen dituzten beharrei buruz kontzientziatzea, bai pazienteak, bai ahaideak.

Azkenik, denbora faktore garrantzitsua da. Askotan, ospitaleratzeak bat-batean gertatzen dira eta esku-hartzea “laburra” izaten da —ospitaleratze-egunek eta arrazoi ez-medikoengatik egonaldiak ez luzatzeko beharrak baldintzaturik—; beraz, azkar esku hartu behar izaten dugu, baina modu eraginkorrean, balorazioak eta esku-hartzea oso zuzenak izan daitezen eta, batez ere, helburu nagusira bidera daitezen.

ATENCIÓN EN TRABAJO SOCIAL HOSPITALARIO

El principal objetivo de la intervención de los/las trabajadores/as sociales desde el hospital es garantizar los cuidados al alta hospitalaria.

